

## 4. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Egitasmoa aurrera eramateko, honako sozietateak ditugu beharrezkoak:

- 1) **Hornitzaileak:** Hornitzaileak, gainerako sozietateekin konparatuta, garrantzitsuenak dira, izan ere, gure produktua egitekoa beharrezkoa dugu **plastiko birziklatua**. Hain zuzen, *Nexeo Plastics* enpresak plastiko birziklatuak saltzen ditu.
- 2) **Banketxeak:** **Finantzaketa lortzeko** diru-iturri nagusi eta garrantzitsuenak banketxeak dira.
- 3) **Garraiolariak:** Gure produktua **erosleen etxeetara hel dadin** (online erosiz gero), beharrezkoak ditugu garraio enpresak.
- 4) **Sektore publikoa:** Sektore publikoak bi kontutan lagundu gaitzake: Batetik, **dirulaguntzak** jasotzen, eta, bestetik, gure **proiektuari babes**a eta **sostengua** ematen. Horrez gain, baimenak eta lizentziak eman behar dizkigu jarduera aurrera eraman ahal izateko.
- 5) **Bezeroak:** Bezeroak beharrezkoak dira, azken batean, gure **produktuaren erosleak** direlako. Bezerorik gabe, ezin dugu egitasmoa aurrera atera.
- 6) **Bazkideak:** Bazkideok enpresa osatzeko kapitala jartzeaz gain, enpresaren funtsezko elementuak gara, zerbait gertatzekotan, gure delako ardura. Zehazki, **11 bazkidek** osatzen dugu enpresa.